



SENPEREKO HERRIKO ETXEA

MAIRIE
DE
SAINT PÉE SUR NIVELLE

Saint Pée sur Nivelles, le 22 novembre 2018
Senperen, 2018ko azaroaren 22a

Mesdames et messieurs les Senpertar
Senpertar Andereak eta Jaunak

Direction générale des services
Dossier suivi par Valérie Toral
☎ 05 59 54 66 35
✉ dgs@senpere64.fr

N/Réf. : PMN/BO/VT
Objet : compteur Linky

Zerbitzuen zuzendaritza nagusia
Valérie Toral-ek segitzen duen dosierra
☎ 05 59 54 66 35
✉ dgs@senpere64.fr

Erref./zbk : PMN/BO/VT
Gaia : compteur Linky

Madame, monsieur,

Je suis régulièrement interpellé par les uns ou les autres sur la prochaine installation des compteurs Linky. Ainsi ai-je souhaité par ce courrier vous apporter de manière objective des éléments de réponse à vos interrogations.

Pourquoi le compteur Linky ?

L'installation dans tous les foyers de nouveaux compteurs dit communicants (compteur Linky) répond à la loi de transition énergétique pour la croissance verte adoptée en août 2015 qui prévoit la réduction de la consommation, l'intégration de nouveaux modes de production comme les installations photovoltaïques, la mise en place de bornes de recharge de véhicules électriques....

Par cette loi, Enedis, gestionnaire du réseau d'électricité, est dans l'obligation d'installer ces compteurs avec pour objectif d'équiper 90% de foyers français d'ici 2022.

Le compteur Linky permet d'assurer un meilleur suivi de la consommation et ainsi de s'adapter au caractère intermittent des énergies renouvelables, de mieux prendre en compte les productions locales, mieux détecter les incidents et permettre une relève du compteur à distance. Il doit permettre une meilleure gestion du réseau d'électricité.

Jauna, anderea,

Batzuek eta bertzeek erregulariki Linky kontagailuen instalazioari buruzko argibideak galdegiten dizkizadue. Hortarako, gutun honen bidez, zuen galderei manera objektiboan ihardetsi nahi izan diet.

Zergatik Linky kontagailua ?

Etxe guzietan kontagailu komunikatzaile berrien instalatzea (Linky kontagailuak) 2015eko agorrilean onartu hazkunde berderako energia trantsizioaren legearen ondorioa da. Lege horrek energia kontsumoaren apaltzea, instalazio fotovoltaikoak bezalako ekoizpen molde berrien integratzea, ibilgailu elektrikoak berriz kargatzeko terminalen plantan ezartzea eta beste neurri anitz aurreikusten ditu.

Lege horren ondorioz, Enedis-ek, elektrizitate sarearen kudeatzaileak, kontagailu berri horiek derigorrez instalatu behar ditu. Helburua da 2022ko Frantziako bizitegien %90 ekipatzea.

Linky kontagailuari esker kontsumoaren segimendu hobe egiten ahal da, energia berriztagarrien izaera intermitenteari egokitzen ahal zaie, tokiko ekoizpenak hobeki kontuan hartzen ahal ditu, makurrak hobeki detektatzen ahal ditu eta kontagailuaren zenbakiak urrunetik hartzen ahal dira. Elektrizitate sarea hobeki kudeatzeko ahala eman behar du.

Existe-t-il un risque...

Pour la santé ?

L'agence nationale de sécurité sanitaire (Anses) a conclu, en juin 2017, que la probabilité est très faible que les champs électromagnétiques dus aux compteurs communicants génèrent des effets sanitaires à court ou long terme.

L'Agence Nationale des Fréquences (ANFR) a également réalisé des séries de mesures, dans des habitations équipées du compteur Linky qui sont venues confirmer les premières mesures effectuées en laboratoire.

L'ANFR confirme que les champs d'émissions électromagnétiques du compteur Linky sont très faibles et qu'ils ne sont pas significativement différents de l'ancien compteur.

Le compteur Linky n'utilise pas d'ondes radio (radiofréquence) pour communiquer

Toutes ces études sont publiques et consultables sur leurs sites internet respectifs (www.anses.fr et www.anfr.fr).

Pour les données personnelles ?

La Commission Nationale de l'Informatique et des Libertés (CNIL) a été consultée sur la conformité à la loi Informatiques et Libertés, d'un enregistrement dans le compteur des consommations quotidiennes des foyers.

La CNIL a donné un avis favorable assorti de recommandations dans une délibération en date du 15 novembre 2012.

Le Maire peut-il donner un avis sur l'installation de ces compteurs ?

Les préfets et les tribunaux administratifs ont rappelé, à plusieurs reprises, que la commune n'avait pas compétence pour adopter une réglementation sur l'implantation des compteurs Linky, qui relève de la compétence exclusive de l'Etat.

Peut-on s'opposer à l'installation d'un compteur à son domicile ?

La loi impose le déploiement des compteurs communicants et tous les amendements permettant à l'utilisateur de s'opposer à l'installation des compteurs ont été rejetés.

Toutefois, la société Enedis et/ou ses sous-traitants ne peuvent remplacer un compteur situé à l'intérieur ou à l'extérieur du logement sans le consentement de l'utilisateur.

Badea arriskurik...

Osagarriarendako ?

2017ko ekainean, Osasun segurtasunaren agentzia nazionalak (Anses) ondorioztatu du kontagailu komunikatzaileek sortzen dituzten eremu elektromagnetikoen osagarri mailan makurrak eragiteko probabilitatea arraztiak dela epe labur edo luzean.

Frekuentzien Agentzia Nazionalak (ANFR) neurriak hartu ditu Linky kontagailuak dituzten bizitegiengan. Emaizte laborategietan egin lehen neurriak baieztatu dituzte.

ANFRek baieztatzen du Linky kontagailuaren eremu elektromagnetikoen hedapena arrazti ahula dela eta aitzineko kontagailuekin konparatuz gero berdintsua dela.

Linky kontagailuak, komunikatzeko, ez du irrati uhinek baliatzen (irradi-frekuentzia).

Ikerketa guzi horiek publikoak dira eta erakunde horien webguneetan irakur daitezke (www.anses.fr eta www.anfr.fr).

Datu pertsonalendako ?

Informatikaren eta Askatasunen Batzorde Nazionalari (CNIL) bizitegien eguneroko kontsumoa kontagailuetan grabatzea Informatika eta Askatasun legearen arabera ote den eta horri buruzko bere iritzia galdegin zaio.

2012ko azaroaren 15ean, CNILek aldeko iritzia eta gaiari buruzko aholkuak eman ditu.

Auzapezak kontagailu horiek instalatzeari buruzko iritzia ematen ahal du ?

Prefetek eta auzitegi administratiboek anitz aldiz oroitarazi dute herriek eta Herriko Etxeek ez dutela Linky kontagailuaren ezartzeari buruzko araubiderik onartzeko eskumenik. Estatuaren eskumena da bakarrik.

Norbere bizitegian kontagailua instalatzeari kontra altxa daiteke ?

Legeak kontagailu komunikatzaileen hedatzea inposatzen du. Erabiltzaileak kontagailuaren instalatzeari kontra egiteko lege zuzenketa guziak baztertuak izan dira.

Halarik ere, Enedis sozietateak edota azpitratzaileek, erabiltzailearen baimenik gabe, ez dute bizitegiaren barnean ala kanpoan kontagailurik ordezkatzeko ahal.

Les clients qui refusent le remplacement gardent leur compteur. Celui-ci devra être relevé au moins une fois par an, comme le prévoient les contrats de fourniture. Cette relève sera à l'avenir certainement facturée. Cette question est à l'étude par la Commission de Régulation de l'Energie et la Commune n'est pas décideur en la matière.

Quel est le calendrier sur Saint-Pée-sur-Nivelle ?

Enedis, par le biais de ses sous-traitants, commencera le remplacement des compteurs sur Saint-Pée à partir d'octobre 2019. Les sous-traitants envoient un courrier d'explication un mois avant pour signaler la date de passage du technicien. Dans tous les cas, il est possible de prendre un rendez-vous pour être présent le jour du remplacement.

D'ores et déjà et depuis 2017, les nouvelles constructions sont systématiquement équipées d'un compteur Linky. C'est d'ailleurs, le seul compteur en fabrication actuellement.

J'espère par ce courrier vous avoir apporté une information sur l'installation prochaine des compteurs Linky sur le territoire de notre Commune.

Je vous prie d'agréer, madame, monsieur, l'expression de mes salutations distinguées.

Ordezkapena errefusatzen duten klienteek beren kontagailu zaharra atxikitzen dute. Enedisek urtean behin neurriak hartu beharko ditu, hornitze kontratuan idatzi bezala. Geroan, seguraski, Enedisek neurri hartze horiek ordainaraziko ditu. Energiaren Erregulaziorako Batzordea galde hau ikertzen ari da. Herriak ez du gai horretan erabakirik hartzen ahal.

Zein da Senpereko egutegia ?

Enedis, azpitratatzaileen bidez, 2019ko urritik hasiko da kontagailuak ordezkatzeko Senperen. Azpitratatzaileek hilabete bat lehenago azalpen gutun igorriko dute, teknikariaren pasatze eguna zehazteko. Edozein egoeratan, hitzordu bat hartzen ahal da, ordezkatzeko egunean kientea hor izateko.

Jadaneko eta 2017az geroztik, etxe eta bizitegi berriak sistematikoki Linky kontagailuaz hornituak dira. Gainera, gaur egun ez da beste kontagailurik fabrikatzen; hau da fabrikatzen den bakarra.

Agian gutun honen bidez gure herrian Linky kontagailuen instalatzeari buruzko argibideak eman dizkizuedala.

Onar itzazue, jaunak, andereak, nire agurrik beroenak.

Le Maire / Auzapeza
Pierre-Marie Nousbaum

